


lo-kanta

MIREN GORROTXATEGI

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MIREN GORROTXATEGI

lo-kanta

E
l
k
a
r
r
l
r
a
k
u
r
r
i
z

Ezkaratzean sartzeaz nagoela, atea tupustean zabaldu eta norbait irten da barrutik. “Gabon” esan diodan arren, ez dit begiratu ere egin, eta purrustadaka urrutiratu da etxe ataritik, maletatxo bat eskuan. Erlojuari begiratu eta binaka igo ditut lehen solairurainoko eskailerak. Ahalik eta isilen zabaldu dut atea, eta zapatilak kendu ditut. Etortzeko beraiek esan didaten arren, lo egongo baitira agian.

Noizbait sarrera hartako usaina etxekoa nuen arren, egun ez dut neure sentitzen. Nire etxeari banilla beltzaren lurrina dario; honi, itxiarena. Ez da usaina arrotz zaidan gauza bakarra: hamarkadetan sarrerako horma nagusia apaindu duen koadroa ere ordeztua izan da. Jada ez dago aitaren eta amaren abizenen armarria irudikatzen duen koadrorik, titi bat bistan duen emakume beltz baten margoak hartu du haren lekua. Aitak gaztetan zizelkatutako kutzak han jarraitzen du, eta, gainean, hauts kapa mehe batek estaltzen ditu ahizparen eta bion komunioko argazkiak. Okasiorako propio erositako soinekoa daramat jantzita, baita irribarre behartu bat ere. Ahizpak nire soineko bera darama, jostunak estutu behar izan ziona; irribarre zabala ahoan, batere behartu gabea.

Oinpuntetan sartu naiz egongelan. Sofan eserita aurkitu dut aita. Telebistan iragarkiak ematen ari dira, baina begiak itxita ditu hark, ahoa zabal.

—Aita —xuxurlatu diot.

Begiak ireki eta betaurrekoak ondo kokatu ditu sudur gainean. Ahotsa kendu dio telebistari.

—Ezin izan dut lanetik lehenago libratu —desenkusatu naiz.

—Oraintxe joan da medikua.

—Eta zer esan du?

—Ez dio beste botikarik eman. Minarentzako bizkarrean itsasten diren txaplata horiekin nahikoa duela dio —Burua astindu du aitak, medikuaren erabakiarekin ados ez dagoela garbi uzteko.

—Aita, jakingo du berak, medikua da.

—Atzo etorri zenak beste zera bat ere eman zion minak kentzeko.

—Gaur ere minez dago?

—Eztarria lehortuta duela dio.

—Baina ez dauka inon minik?

Sorbaldak altxatu ditu aitak eta telebistari berriro soinua jarri dio, elkarrizketa amaitutzat emanaz. Pasabidean zehar aurrera egin dut gurasoen logelara. Sarreran hasitako arte afrikarraren erakusketak han du jarraipena: merkatu koloretsuak, okre koloreko ilunabarrak,

haur biluziak, titiak agerian dituzten emakume gehiago. Intzirika entzun dut logelatik datorren amaren ahotsa, zauritutako animalia dirudi. Ilunpetan dago gela. Gau-mahaiko argitxoa piztu dut: uzkurtuta dago ama, dardarka ari da. Txikia iruditu zait: eritasunak zeharo higitu du. Hezur-azalezko besaurrea non egon daitekeen kalkulatu eta hantxe, edredoiaren gainean pausatu dut eskua.

—Ama, zer duzu? Mina daukazu?

—Hotza. Hotz daukat gorputz osoan.

Armairutik manta bat atera eta edredoiaren gainean zabaldu dut. Amaren ondoan eseri naiz ondoren. Aieneak isildu egin dira, ez dakit mantaren epeltasunak ala nireak baretu duen.

—Hobeto, ama?

—Eztarria lehortzen zait.

—Nahikoa ur edaten duzu?

—Edango ez dut ba. Lotan geldituko zara?

—Jokin afaltzeko zain izango dut etxean. Atzo baino hobeto zaudela dirudi gainera, ama. Dena den, nahi baduzu, etzango naiz pixka batean hementxe, zure ondoan.

Aitak lo egiten duen aldean etzan naiz. Umetan, gaixotzen nintzenean, hantxe etzaten nintzen. Han egiten nuen lo sendatu arte, amaren ondoan. Orain, ordea, amaren eskuak dira nireen babesa bilatzen dutenak. Eskutik heldu eta hatz lodiarekin zirkuluak egiten hasi zait eskugainean. Ez naiz eroso sentitzen, baina eskua askatzeko bulkadari eutsi diot. Noiz emango ote nion eskua azkenekoz? Txikitan. Ohikoa zenean eskutik heltzea gurasoei, ahizpari, aitona-amonei, lagunei, andereñoen bati. Orain Jokinek baino ez dit heltzen eskutik, oso noizean behin. Intimitate handia eskatzen du inori eskua emateak, are gehiago laztantzeak. Eta amak eskatu gabe hartu dit.

—Amaiak deitu dit lehen —esan dit. Aurpegia piztu zaio Amaiaren izena aipatzean; niri, ilundu—. Egoten zara Amaiarekin?

—Ez —“Ez gaixotu zinenetik”, zehaztu beharko nioke—. Ez aspaldian.

—Ia egunero deitzen dit. Garestia behar du Afrikako puntatik honaino deitzeak, ezta? Nire gaixotasunari buruzko galderak egiten dizkiot baina bera ez dela espezialista esaten dit eta hemengo medikuei kasu egiteko.

“Nire gaixotasuna”. Amak ez dio izenez deitu nahi bere gaixotasunari, izena duena badelako.

—Amaiak arrazoi du, ama; bera pediatria da. Zure medikuei egin behar diezu kasu. Dena den, badauka laster itzultzeko asmorik?

—Zer ba? Gutxi gelditzen zait? Zerbait ezkututzen didazue?

—Ez, ama, ez da hori, baina...

—Zu hemen egonda ez da haren beharrik. Ikusi duzu sarrerako margolana? Urtebetetzerako bidali zidana da, oroitzen? Ederra da benetan.

—Oso ederra —gezurra esan diot—. Zer esan dizu medikuak?

—Haserretu egin da eztarria lehorra daukadala esan diodanean.

—Haserretuko ez zen ba, ama. Eztarria lehorra daukazulako deitu baduzu larrialdietara, normala. Baso bat ur ekarriko dizut.

Jaikitzeke imintzioa egin dudan orduko gogor estutu dit amak eskua, ulertu du lehenbailehen handik ihes egiteko dudan gogoa.

—Gelditu zaitetz beste pixka batean.

—Ama, berandu da: gainera, aita ohera etortzeko gogoz izango da honezkero.

—Ez da gauerdia baino lehen oheratzen.

—Jokin zain daukat, ama.

—Senarra da, ez titiko umea. Afalduko du zu gabe.

Amak preso daukan eskua askatu gabe, mugikorra bilatu dut poltsan beste eskuaz. “Afaltzera bai?” “Noiz hator?” “Non dun telefonoa! Bost aldiz deitu dinat”. “Amarenean” erantzun diot. “Atzoko makarroiak frigoan. Laster nauk”.

—Zer zabilta? —amak.

—Jokini berandu joango naizela abisatzen.

—Lotan geldituko zara, beraz?

—Zu lokartu arte ez naiz hemendik mugituko, ados?

Eskua estutu dit luze. Bere morse kodean eskerrik asko esan nahi du horrek.

—Orain utziko didazu ur bila joaten?

Eskua libratu ahal izan dut azkenean. Gau-mahaian daukan basoa hartu eta komunera abiatu naiz, Kongoko paisaiak ezker-eskuin. Komuneko atea ireki orduko pixa-usainak kolpatu nau. Basoa bete eta amaren ondora itzuli naiz. Hark ezpainak busti baino ez ditu egin. Berrero ondoan etzan naiz. Bi eskuak hartu dizkit orain. Aurrez aurre gaude, eta eskuez gain begiradaz ere jabetu zait. Gorputza ez ezik, begietako distira ere akitu zaio. Begiak itxi ditu, ez dut antza gonbidapenik haren begiradako zoko intimoak arakatzeko.

—Lehenago lokartuko naiz zerbait abesten badidazu —xuxurlatu du begirik ireki gabe.

—Abestu? —Barre-purrustada irten zait, bion artean sortutako gozotasun guztia zirt batean uxatu dut. Amak begiak ireki ditu.

—Txikitan beti abesten nizun lo har zenezan, oroitzen?

Nik Txirri, Mirri eta Txiribitonen abestiak eskatzen nizkizun, Zuk Loa loa, Haurtxo polita, Amaren bularra abesten zenizkidan.

—Oroituko ez naiz ba. Baina haur txikiei abesten zaie lo har dezaten, ama, ez helduei.

—Zaharrak maitatzea baino atseginagoa da, bai, umeak maitatzea.

—Hara, xantaia emozionalera pasatu zara orain.

—Ez da xantaia. Soilik diot errazagoa dela haurtxo batekin samurra izatea nire moduko amona zahar batekin baino.

—Hara! Ez naiz nahikoa samurra zurekin?

Burkoan elkarri lotuta ditugun eskuei begiratu diet. Joder, Jokinekin berarekin ere ez naiz egoten eta halako posizio intimoan. Amak begiak itxi ditu berriro, ez dirudi erantzun behar didanik. Eskerrak eztarria lehorra zuen, hori da hitz egin beharra! Atseginagoa dela umeak maitatzea. Umeak ordea nahita ekartzen dira, desiratuak izaten dira gehienetan. Agian Amaia bizi den Kongoko herrixkan ez, baina hemen bai. Eta jaio aurretik dakizu lo-kantak abestu beharko dizkiozula, mila fardel aldatu beharko dituzula. Eta gustura egingo dituzula biak ala biak. Baina gurasoak zahartzearena? Hori ez da nahita egiten den hautu bat, zahartzen dira eta kito, eta ez duzu ilusioz hartzen haien fardelak aldatu beharra. Txikitan, gaixotzen nintzenean, pentsatzen ote zenuen inoiz txanponaren alde batean geundela, ama? Noizbait txanpona itzuli egingo zela eta ifrentzuan ni izango nintzela zu zaindu beharko zintuena? Horretaz guztiaz hausnartu zenuen haurdun gelditu aurretik? Horretaz guztiaz pentsatuta ere, haurdun gelditu zinen? Horretaz guztiaz pentsatu zenuelako haurdun gelditu zinen?

Lo-kantarik gabe ere, amak, azkenean, lo hartu duela dirudi. Poliki-poliki hatzak haren eskuetatik askatu eta altxatu egin naiz.

Aita lo dago berriro ere telebistaren aurrean.

—Zoaz ohera —murmurikatu diot belarrira. Telebista itzali eta pasabidean aurrera ezkutatu da komunera. Oinetakoak jantzi eta, isil-isilik, joan egin naiz.

—Non ibili haiz? —senarraren harrera etxera sartu naizenean.

—Esan diat, amarenean.

—Gaur ere minez?

—Konpainia nahi zian, besterik ez.

—Ia lokartu naun sofan hire zain.

—Afaldu duk? —galdetu diot, hozkailuko apaletan jada desagerturiko makarroi tupperraren bila. Harraskan aurkitu dut tomatez ondo koipeztatutako tupperra, beste ontzi batzuekin batera.

—Digestioa ere egin dinat jada.

—Ohera noak, leher eginda nagok —kolpez itxi dut hozkailua.

—Itxaron, neska —esan dit atzetik gerritik oratu bitartean, eta adatsak alboratuta, belarri-gingilean kosk egin dit, leun.

—Jokin, nekatuta nagok.

—Baina goizean ez didan ba esan obulatzen ari haizela? Orain dun momentua.

Hozkailuaren eta kafe-makinaren artean nahita utzitako aldizkaritik begira-begira daukadan haurtxo irribarretsuari begirada itzuli diot, Jokinek kamisetaren gainetik titiburuak laztantzen dizkidan bitartean. “Haurdun gelditu aurretik jakin beharreko guztia” diote haurraren ondoan letra beltz lodiek. “Haur jaioberria nola bainatu, pausoz pauso” “Merkatuko bost pixoihalik onenak aztertu ditugu”. Ba ote da helduentzako pixoihalen rankingak letra larriz iragartzen dituen aldizkaririk? Zure ama nola dutxatu urratsez urrats azaltzen duen artikulurik? Gaur

goizean ere haurdunaldi aurreko pilula hartzea ahaztu zaidala ohartu naiz, Jokinek pilulen kaxa hozkailuaren eta kafe-makinaren artean espresuki uzten duen arren, haurtxo irribarretsua aldizkariaren ondoan.

—Ez zaukaat gogorik.

Jokinen besoetatik ihes egin eta komunean sartu naiz.

—Hire ahizpak deitu din, ez dionala telefonorik hartzen. Ama nola dagoen jakin nahi zinan

—entzun dut hortzak garbitzen ditudan bitartean. Komunetik irten eta arropa kentzen hasi naiz pijama janzteko—. Idoia, ezin haiz betiko haserre egon Amaiarekin.

—Askatasun osoz aukeratu dik amaren zaintzaz ez arduratzea, nik ere askatasun osoa zeukaat betiko haserre egoteko. Edo horretarako ere norbaiti baimena eskatu behar zioat?

—Ez tiro egin mezulariari. Ahizpak deitu dinala jakinarazi nahi ninan, ez besterik —ohera sartu da, mugikorra eskuan duela.

—Jokin, haurtxo bat bagenu, garbituko hioke ipurdia?

—A ze galdera! Horixe garbituko niokeela, pozarren!

—Eta prest egongo hintzateke nire ipurdia garbitzeko? —bota diot bere ondoan etzan naizenean. Ez diot eskurik eman, ez dira gurutzatu gure begiradak. Mugikorraren pantailan iltzatuta dago harena.

—Zertara zatorren hori? Amari ipurdia garbitu behar izan dion? —hatza pantailan irristatzen duen bitartean.

—Ez, ama bere ipurdia garbitzeko gai duk.

—Orduan, zertara zatorren galdera hori? Guztiok ez gaitun berdin zahartzen, batzuk bere ipurdia garbitzeko gai izaten ditun hiltzen diren egunera arte.

—Bazekiat, baina erantzun bat nahi diat. Gaixotuko banintz, neure ipurdia garbitzeko ezgauza banintz, egingo huke nigatik?

—Beharko.

—Beharko? —aurpegiratu diot —pozarrenetik beharkorako tartea amildegia da, egiaz.

—Bai, beharko. Hik ere ama beharrak eraginda zaintzen dun, ezta? —Ez dakit zer erantzun, baina ez du berak erantzunik espero, ez du mugikorretik begirik kentzen—. Dena dela, inork neuri ipurdia garbitu baino, nahiago ninake hil.

—Benetan ari haiz? Ez hidake zaintzen utziko?

—Duintasuna galdu behar bada, ez —Azkenean mugikorra gau-mahaian utzi eta gerritik heldu dit.

—Eta maitasunez egiten bada, Jokin? Ez duk duina?

—Gehienetan jendeari ordaindu egiten zaion lan horiek egiteko. Maitasunik ez din lekurik hor
—Ilea alboratu eta lepoa miazkatzen hasi zait.

—Eta ez duk duina haien lana? —neureari eutsi diot.

—Lana bai. Gaixoa dun hor nire ustez duintasuna galdu duena —esan, eta lepoan musuak eta miazkadak tartekatzen jarraitu du.

—Duintasun galdu? Benetan ari haiz?

—Ez zakinat, Idoia, eta, gainera, berdin zaidan —Elkarrizketa amaitzeko, gainean etzan eta pijamaren azpitik bularrak laztantzen hasi zait.

—Baina, hala ere, prest hago aita izateko.

—Zer ikusi zaukan horrek? —Etsita, nire bularrak askatu eta alboan etzan da, sabaira begira.

—Egunen batean, dena ondo bidean, heu ere zahartuko haizela. Ez duk nahi nik ipurdia garbitzerik. Balizko seme edo alaba jarriko huke horretan? Hi haurtxo ipurmasail guriak garbitzeko pozarren hagoelako guraso zaharren fardel zikinak garbitzera kondenatu nahi duk hire ondorengoa?

—Hemen ez din inork inor ezertara kondenatu, Idoia —luze begiratu dit sastakadaren aurretik—: hik ama zaintzeko hautua egin dun, Amaiak bere bizitzarekin jarraitzea aukeratu din.

—Eta nik ama zaintzea aukeratu dudalako, akabo nire bizitza. Hori esan nahi didak?

—Badakin ezetz. Esan nahi ninan hik ama zaintzeko betebeharrak morala sentitu dunala; hire ahizpak ez. Hark haurtxo behartsuak sendatzeko beharra sentitu din.

—Eta horrek pertsona hobea egiten dik?

—Ez: baina ezta hi ere. Horregatik uste dinat ahizpari deitu eta zuen korapilo hori askatu behar zenuketela.

—Ez diat Amaiaz hitz egin nahi, Jokin, orain ez.

—Ezta nik ere. Txortan egitea besterik ez ninan nahi, neska —Mugikorra hartu, ordua begiratu eta atzera gau-mahaian utzi du, hasperen batez berandu dela adieraziz. Dena den, oraindik larrutan egiteko esperantzarik ez balu, honezkero amaitua zuen elkarriketa.

—Bestalde, umeak izatea bizitza-asegurua ere baduk zenbaitentzat —teman jarraitu dut—. Zenbat ote dituk zahartzaroko bakardadeak beldurtuta umeak ekartzen dituztenak...

—Idoia, benetan ari haiz? Uste dun larrutan egitera doazen bikoteek hori guztia pentsatzen dutela? Egin egiten dun eta kito. Hator hona.

Jokinek pijamaren gomatik tira egin dit eta aldi berean mihia ahoan sartu dit. Atzera egin dut: ez ditut esateko nituen guztiak oraindik esan.

—Haurtxoa lokartzeko abestuko huke? Lo-kantak abestuko hizkioke haurtxoari?

—Bai —Hasperen egin du berriro.

—Eta niri, abestuko hidake?

—Bai —Edozeri baietz esateko prest dago ni behingoz isiltzearren.

—Eta abestuko hidake orain?

—Idoia, orain ez.

—Noiz ba? Inoiz ez didak abestu.

—Ez naun abeslari ona.

—Berdin zaidak, abestu iezadak.

—Baina zer nahi dun abestea?

—Lo-kanta bat, goxo-goxo, larrutan egin aurretik —esperantzaren bat eman behar diot gizajoari.

—Benetan ari haiz?

—Bene-benetan.

—Ezin dinat —barrez hasi da Jokin.

—Tira, nire ipurdia garbitzeko prest hengoke baina ez haiz gauza lo-kanta bat abesteko?

—Ez dun gauza bera. Fardelarena derrigorrean egingo ninake, beste aukerarik ezean.

—Hain zuzen, ez diat beharretik egiteko eskatzen, maitasunetik baizik. Maite naukalako soilik.

—Abesteaz ari haiz ala fardelak aldatzeaz?